



Busturiko  
Udala



# Akta

UDAL OSOKO BILKURA

SESION PLENARIA MUNICIPAL.

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea  
**EGUNA / FECHA:** 2016/1/27  
**HASIERA / INICIO:** 19:30  
**AMAIERA/FINAL:** 20:30

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/ALCALDE**

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)

Iñaki Inzunza Urrutia (EAJ-PNV)

M.<sup>a</sup> Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)

Aritz Arregi Gurrutxaga (EH BILDU)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**

Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria

**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

### 1.- Aurreko saioko akta.-

Osoko Bilkurak aho batez onartu zituen, 2015eko abenduaren 30eko akta.

### 1.º.- Acta de la sesión anterior.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 30 de diciembre de 2015.

### 2.- Alkatezta Dekretuak.-

Osoko Bilkurari honako Alkatezta Dekretuen berri eman zitzaion:

- 1/16 epaiketarako ahalordea emateari buruz.

### 2.º.- Decretos de Alcaldía.-

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la Alcaldía:

- 1/16 sobre apoderamiento para Juicio.

### 3.- Iñaki Inzunza Urrutia zinegotziaren kargu jabetzea.-

Hauteskunde-batzorde Zentralak Iñaki Inzunza Urrutia jaunaren egiaztagutuna igorri duela ikusirik, Udalbatzak aho batez adostu zuen Udal honetako zinegotzi kargua berari ematea, Javier Luaces Carreño jaunaren orde, horrek borondatez uko egin ondoren. Inzunza jauna bertan dela, aipatutako kargua eman zaio, horrek dakartzan eskubide eta betebeharrak onarturik.

### 3.º.- Toma de posesión del concejal Iñaki Inzunza Urrutia.-

Visto que por la Junta Electoral Central ha sido remitida la credencial de D. Iñaki Inzunza Urrutia, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó darle posesión del cargo de concejal de este Ayuntamiento, en sustitución de D. Javier Luaces Carreño, tras la renuncia voluntaria de éste.

Encontrándose presente el Sr. Inzunza, queda posesionado en el citado puesto y en el ejercicio de sus derechos y asunción de las obligaciones inherentes al mismo.

### 4.- Ordezkaritza udalaz gaindiko organoetan.-

Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen Iñaki Inzunza Urrutia zinegotzi sartu berriak Javier Luaces Carreño zinegotziak zituen ordezkaritza berak izatea udalaz gaindiko organoetan, hau da, UEMA-Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko Batzar Nagusian.

### 4.º.- Representación en órganos supramunicipales.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó que el concejal entrante, Iñaki Inzunza Urrutia, ocupe las mismas representaciones en órganos supramunicipales que tenía el concejal Javier Luaces Carreño, es decir, en la Asamblea General de la Asociación de Municipios Euskaldunes, UEMA.

### 5.- Etxezarre EUren Xehetasun Azterketaren aldaketaren behin betiko onarpena.-

2015eko irailaren 16an Jorge Rodríguez García jaunak, Iñaki Badiola Achiricaren izenean, aurkezturiko B-15 lursailleko Etxezarre EUren Xehetasun Azterketaren aldaketaren harira; kontuan hartuta 2015eko urriaren 7an Tokiko Gobernu Batzordean akordio bidez berau onartu zela, hogeneguneko epean jendaurrean jarrita Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2015eko urriaren 28ko 207. zenbakian, 2015eko urriaren 26ko Deia egunkarian eta Udaletxe honetako Iragarki Taulan (jendaurrean egon da) argitaratu zenetik; eta kontuan

### 5.º.- Aprobación definitiva de la modificación del Estudio de Detalle de la U.E. Etxezarre

En relación con el expediente que se tramita para la modificación del Estudio de Detalle de la U.E. Etxezarre en la parcela B-15, presentada por D. Jorge Rodríguez García, en representación de D. Iñaki Badiola Achirica, el 16 de septiembre de 2015, y visto que mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 7 de octubre de 2015 se aprobó inicialmente el mismo, sometiéndose al trámite de información pública por plazo de veinte días a contar desde el día siguiente al de la publicación del correspondiente



hartuta aipatu epean ez dela alegaziorik aurkeztu eta Uraren Euskal Agentziaren (URA) eta Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Sailaren txosten sektorialak aldekoak izan direla (baldintza bakarra izan da hornidura eta saneamenduaren erakunde kudeatzaileak, Busturialdeko Ur Partzuergoak, eskaera berriei zerbitzu emateko baliabideak daudela ziurtatzea). Halaber, 2015eko abenduaren 30ean udal-zerbitzuek aldeko txosten teknikoa igorri zuten.

Beraz, kontuan hartuta espedienteak biltzen duen dokumentazioa, Osoko bilkurak aho batezhonakoa erabaki zuen:

**LEHENA.-** Behin betiko onartzea B-15 lursaileko Etxezarre EUren Xehetasun Azterketaren aldaketa, Jorge Rodríguez García jaunak, Iñaki Badiola Achiricaren izenean, aurkeztua.

**BIGARRENA.-** Erabaki hori interesdunei jakinaraztea eta berau, bertan jasotako arau subsidiarioekin batera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalkunderik handienetakoa duen egunkari batean argitaratzea. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiari helaraziko zaizkio behin betiko onarpen-erabakia, behin betiko onartutako antolamendutresnaren kopia legeztatua, berau osatzen duten eta Udaleko Idazkariak bideraturiko plano eta agiri guztiak barne, eta izapideturiko espediente osoaren kopia, erregistratu eta gorde ditzan.

anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, nº 207, de 28 de octubre de 2015, en el diario Deia de 26 de octubre de 2015, así como en el Tablón de Anuncios de este Ayuntamiento, en que ha permanecido expuesto al público; visto que durante el plazo referido no se han presentado alegaciones y los informes sectoriales de la Agencia Vasca del Agua (URA) y Departamento Foral de Desarrollo Económico y Territorial han sido favorables (con la única condición de que el ente gestor de abastecimiento y saneamiento, Consorcio de Aguas de Busturialdea, aporte una certificación sobre la existencia de recursos para dar servicio a las nuevas demandas). Asimismo, se ha emitido informe técnico favorable por los servicios municipales en fecha 30 de diciembre de 2015. Consecuentemente, a la vista de la documentación que integra el expediente, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

**PRIMERO.-** Aprobar definitivamente la modificación del Estudio de Detalle de la U.E. Etxezarre en la parcela B-15, presentada por D. Jorge Rodríguez García, en representación de D. Iñaki Badiola Achirica.

**SEGUNDO.-** Notificar el presente acuerdo a los interesados, y ordenar su publicación, junto con las normas urbanísticas incluidas en el mismo, en el Boletín Oficial de Bizkaia y en un diario de los de mayor difusión en el territorio histórico. Se remitirá, asimismo, a la Diputación Foral de Bizkaia comunicación del acuerdo de aprobación definitiva así como una copia autenticada de un ejemplar del instrumento aprobado definitivamente con todos los planos y documentos que lo integran debidamente diligenciados por la Secretaría del Ayuntamiento, y copia del expediente completo tramitado, para su registro y depósito.

## 6.- San Antonioko enklabearen ezabaketari buruzko informazioa.-

Osoko Bilkurari San Antonioko enklabearen ezabaketari buruzko espedienteaz izandako azken berriak jakinarazi zitzaizkion.

## 6.º.- Información sobre la supresión del enclave de San Antonio.-

El Ayuntamiento Pleno fue informado de las últimas novedades del expediente de supresión del enclave de San Antonio.

## 7.- Galde-eskeak.-

Ruiz zinegotzi andreak jakinarazi zuen Otsozulo taldeak Udalari jakinarazi diola datorren 30ean musika-kontzertu bat egingo dela Axpeko gaztetxean. Gazteen taldearekin ez dagoenez sinatuta inolako hitzarmenik, ez dago argi zein prozedura jarraitu jarduera horiek baimentzeko, ezta baimenik eskatu behar ote den ere, etab., beraz, zinegotziak adierazi zuen premiazkoa dela Udalaren eta Otsozuloren arteko hitzarmena idaztea lokalaren kudeaketari buruz. Bestetik, gogoratu zuen iaz garbiketara-razoak izan zirela, baita auzotarren kexak ere, gaztetxean egin zen beste jarduera baten harira; hortaz, eskaera egin zion Otsozulori

## 7.º.- Ruegos y preguntas.-

La Concejala Sra. Ruiz informó de que el grupo Otsozulo ha comunicado al Ayuntamiento que el próximo día 30 se realizará un concierto de música en el gaztetxe de Axpe. Que como no hay firmado ningún convenio con el grupo de jóvenes, tampoco está claro el procedimiento que se debe seguir para autorizar estas actividades, ni si se debe solicitar permiso, etc., por lo cual manifestó que era urgente redactar un convenio del Ayuntamiento con Otsozulo sobre la gestión del local. Por otro lado recordó que el año pasado hubo problemas de limpieza y quejas del vecindario por otra actividad realizada en el gaztetxe, por lo que pidió a Otsozulo



Busturiko  
Udala



# Akta

kontzertu ostean garbiketaz ardua dadin.

Arregi jaunak erantzun zion berak helaraziko zizkiola Otsozulo elkarteari (bera bertakoa da) proposamen biak, hitzarmenaren sinadurarena eta garbitasunarena.

Lartitegi jaunak adierazi zuen, bere iritziz, Otsozulok baimena eskatu beharko lukeela, Busturiko gainerako taldeek egiten duten bezalaxe.

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudana Idazkariak sinatuta.

que se encargase de la limpieza posterior al concierto.

El Sr. Arregi le respondió que él trasladaría al grupo Otsozulo (al que pertenece) las dos propuestas de la firma del convenio y de la limpieza.

El Sr. Lartitegi manifestó que en su opinión Otsozulo debería de pedir permiso, tal y como hacen el resto de los grupos de Busturia.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde

Idazkaria/El Secretario,

Aitor Aretxaga Telletxea

Víctor-Martín Amparan Álvarez